

Pako Aristi: «Euskaldunok politikaz haserretu gabe hitz egiten ikasi beharra dugu»

2012/10/12
Nork Nerea Uranga



Pako Aristi, saiakera liburuarekin (Nerea Uranga/Hitza)

Orain hiru urte independentziaren ideiarekin hasi zen Pako Aristi, eta horren emaitza da *Independentziaren paperak* saiakera liburua. Irailaren 8an bukatu zuen lana, eta atzo aurkeztu zuen Donostian. «Kataluniako Diadaren bezperan bukatu nuen, eta eskerrak, bestela horren bueltan hasiko nintzen idazten, eta liburuak bere mugak ditu». Independentziaren bidean, «euskaldunok osotasunaren kontzientzia osatu behar» dugula dio.

Saiakera politikoa estilo periodistikoan idatzi duzu. Zergatik horrela?

Politikari buruz modu samur batean idaztea zaila delako egin

dut estilo peridistikoan. Politikak hitz egiteko modu iluna, opakoa, zakarra, konplikatu dauka. Hizkera politikoa kasi-kasi antilingua bihurtu da. Antilingua komunikatzeko balio ez duen hizkuntza bat da. Mezua ezkutatzeko erabiltzen den hizkuntza bat, Calvinoren definizioan. Politikan, hauteskundeetan eta politikoan elkarizketetan erabiltzen den hizkera ez da batere komunikatiboa. Nahiz eta orain, azken kanpainen, samurtzen ari den. Baina nik, idazle bezala, pentsatzen eta sentitzen dudana transmititu nahi dut, irakurleari ailegatzea. Idazle bezala beti dut irakurlea gogoan, nire mezua irakurlearengana iristea nahi dut. Horregatik, saiakera hau idazkera periodistikoan egin dut, askoz erakargarriagoa, biziagoa eta irakurtzeko orduan samurragoa izan dadin. Gogoeta politikoa idazkera periodistikoaren bitartez egin dut, zerbait bizigarria egin nahian. Nire azken helburua jendea ez aspertzeta da. Baina gai batzuk aspergari izateko ariskua daukate, eta tartean politika dago. Jendea nahiko kokoteraino dago politikaz, urte askoan txapa asko jaso duelako, eta jende askok errefusatu egiten du. Arrisku hori saihesteko egin dut idazkera periodistikoan. Ahaztu gabe ni formazioz kazetaria naizela.

Liburuaren haria independentzia da. Nondik nora heldu diozu hari horri?

Orain bizpahiru urte independentziaren ideia hori nondik zetorren gogoeta egiten hasi nintzen, Euskal Herria gaurko egoera zergatik den den bezalakoa ulertzeko. Euskal Herria bi estatutan dago banatuta, eta hegoaldean beste bi administrazioetan. Egitura territoriala eta instituzionala oso traketsa, erabat zatitutako herria da. Horrez gain, fragmentazio partidista ere ikaragarria da: denak beren alderdian, lubakietan, sartuta, alderdiekin identifikatuta oso, eta askotan herria ahaztuta. Hizkuntza ere, arrastaka, bere lekua ezin hartuta dago. Liburuan, egoera honetara nola iritsi garen kontatu nahi izan dut. Orduan, historiari errepaso bat ematen hasi nintzen, aurreko mendeetara joaz. Independentzia bizirik mantendu duen hari bat topatu nuen, mendez mende independentziaren gogoia, desioa, grina bizirik mantendu duen hari bat. Liburuan

ARKUPEAN




BIDEO ERREPORTAJEA: CORRUGADOS



BIDEOAK



Txiki eta Otaegiri omenaldia 0:42



Txiki eta Otaegiri omenaldia 0:25



Txiki eta Otaegiri omenaldia 0:29



ostalaritza Gida 2012 SAGARDOTEGIAK

Bilatu zure inguruko sagardotegia


Bilatu

Aurki gaitzazu Facebooken



Atsegin dut

216 pertsonak atsegin dute **Urola Kostako Hitza**.



Facebookeko plugin soziala

BLOGAK




Kalaportu
Zarauzko Udalak Guardia Zibilaren kapitain berri...: Guardia Zibilak kapitain berria du Zarautzen duen koartelean. Patxi Elola PSE-EEko zinegotziak, kapi...



Aldaba
Aldaba euskaltzaleen topagunea "AHO BETE HOTS" JARDUNALDIAK AURKEZTU DITUZTE: "Aho bete hots" jardunaldiak aurkeztu berri dituzte Mintzolan. Zigor Etxebarria Gipuzkoak...



Gaurko hitza



zinetogram
Zinetogram zinekluba (Matadeixe) Baztartxon U11 (osteguna)

22:00tan: Año bisiesto...: Zinetogram zine klubak hasiera eman dio 2012-2013

hari hori agertu nahi izan dut, datuak emanez-eta.

Historiako datuez gainera beste informazio iturri batzuk ere erabili dituzu, ezta?

Historia jaso dut, baina egungo egoera ere zein den pixka bat agertu dut. Datu historiko eta testu zaharrez gainera, bigarren informazio iturri bezala gaur egungo prentsan gure politikoei esandakoak eta adierazpenak erabili ditut. Eta, teoria politiko pixka bat egiteko, hirugarren iturri bezala, hainbat idazleren testuak jaso ditut: Tony Judt, Anthony de Mello, George Lakoff... Hiru iturri horiek erabili ditut.

Liburuan diozu jendea pentsatzen jartzeko ekarpenak egiten dituzula. Zer esan nahi duzu horrekin?

Ekarpen asko egiten ditut, bai. Izan ere, hemen urteetan gure politikoei, buruzagiei, lehendakariak, ETAK zer esango beti zain egon gara. Hori izan da ohitura. Beti zain egon gara, haiek zer esan, guk jarraitzeko. Kontsigna eta panfleto kultura hedatu da, eta ez hainbeste bakoitzak bere gogoeta egin eta bere ikuspegia antolatzeko kultura. Ni liburuan pixka bat jendea esnatzen saiatzen naiz, irakurleak hainbat gauza pentsaraztea nahi nuke eta gogoeta eginaraztea.

Gogoeta egiteko, ordea, hitz egitea ere beharrezkoa da. Baina liburuan diozu ez dakigula haserretu gabe politikaz hitz egiten.

Hala da, haserretu egiten gara, eta hori herri batentzat arazo latza da. Euskaldunok haserretu gabe politikaz hitz egiten ikasi egin behar dugu. Geure artean haserretzeak etsai politikoei on egiten die. Gure haserrea etsaiari kontra egiteko gure energiak batzeko ezintasuna da. Denon artean estrategia bat ezarri, eta subjektu politiko bat bideratzea eragozten digun baldintza da haserrea. Gure haserrea beti etsaiaren irabazia da, eta gure kontradikzio politikoak ere etsaiaren irabaziaz dira. Nik teoria batzuk botatzen ditut liburuan; batzuk ontzat hartuko dituzte, eta besteak ez. Oso liburu kritikoa da, baina garapenari lagunduko dion kritika egin nahi izan dut, kritika laguntzailea. Herri honek edota irakurtzen dutenek nolako heldutasuna duten ikusi nahi dut. Pista irakurleen erreakzioek emango didate.

Liburua hiru pertsonak irakurri dute. Batek esan dit: «Txinpartak aterako ditu». Besteak: «Hautsak harrotuko ditu». Eta hirugarrenak: «Eragina izango du liburu honek jende askorengan». Hiru horien artean, badago gradu diferentzia. Nik nahiago nuke eragina izatea, eta ez hainbeste txinpartak ateratzea. Txinpartak beti erre egiten du, kontrako jarrera eraginez. Laguntzeko egindako liburu bat da, nik herriari laguntza kolektibo bat eman nahi diot. Ez dut inor haserretu nahi, nik gogoeta egitea nahi dut.

Herriaren independentzia gogoeta dagoela diozu. Baina esnatu ondoren, zer?

Jendea lo dagoela esan nahi du; herria inkonsziente dagoela, beren herriaren historia ez duelako ondo ezagutzen. Baina, behin ezagutzen hasten direnean, eta kontzientzia pizten hasten denean, hori dena estrategia baten bidez antolatuta egin behar da. Behin herri batean gehiengo kontziente bihurtzen denean, subjektu politiko bihurtzen da. Oraindik Euskal Herrian ez gara subjektu politikoak. Aldiz, Kataluniako herria subjektu politiko bihurtu da, miloi eta erdi kalera ateratzen dira, eta politikoei bide bat hartzea behartu dituzte. Subjektu politikoak bere helburuak lortzeko eta gizartearen aldaketak eragiteko estrategia daukane da. Euskal Herriaren estrategia baten bidez subjektu politikoak sortzea eta antolatzea falta da. Independentziarako estrategiarik ez dago, hemen estrategia autonomistak eta partidistak daude. Euskal Herriak, gainera, duen zatiketa izugarriaren arazoa du. Horrek berak denok ordezkatuko gaituen subjektu politiko bat osatzea galazten du. Liburuan horren gainean hainbat ekarpen egiten ditut.

Euskal Herriaren subjektu politikoak sortzeko zer egin beharko litzateke?

Horetarako gauza oso inportantea pedagogia politikoak egitea da. Katalunian pedagogia asko egin da, eta gizarte zibilak indar handia du. Hemen, berriz, gizarte zibila oso alderdi politikoaren menpe dago; adibidez, manifestazio politikoak alderdi politiko batek deituta egiten dira. Han ez, han gizarte zibila masa sozial aktiboa da, eta hainbat taldetan antolatuta dago. Esaterako, duela urte asko, Omnium sortu zuten hizkuntza normalizatzeak. Elkarre horrek katalana normalizatzeak lan handia egin du, eta bazkideak ordaintzen duten 25.000 bazkide ditu, tartean jende ezagun asko: Pep Guardiola, Lluís Llach... Independentziarako bidea egiteko eta politikoei presio egiteko, Kataluniako Batzorde Nazionala ere sortu dute. Horrez gain, hango jendeak bere borondatez Kataluniako irratietan propaganda egiteko kuñiak erosi ditu, Kataluniako datu ekonomikoak, soziologikoak eta historikoak emateko. Urteetan egon dira irratietan jendeak borondatez ordaindutako kuñiak entzuten, pedagogia hori da. Gero, pedagogia horren ondoren, subjektu politiko bat zutik jartzera iristen da, baina pedagogiarik gabe ez. Hemen falta dena independentziari buruzko



VID 20120926 095954
1:12



'Conquis' telebista saiokoak
Zarauzen
0:57



AURRESKU ZAHARRA
(Musika Plazan)
1:01



Euskal Jaietako
manifestazioa
0:44



EUSKAL JAIA: '2012
MUNDUAREN AMAIERA'
ANTZEZLANA
1:13

HEDABIDEAK

Azkoitiko Hitz

Azkoitiko albisteak

Baleike – Zumaiaiko albisteak

Baleike kultur elkarteak

Getariako Hitz

Getariako albisteak

Karkara Orioko eta Aiako orainkaria

Uztarría Azpeitiko Ataiye

Azpeitiko ataiye. Azpeitiko albisteak.

Zarauzko Hitz

Zarauzko albisteak

Zestoako Hitz

Zestoako eta Aizamazabalgo albisteak

asturtean, on egin eta ongi etorak.

BERRIKETAN.INFO

[RSS]



berria-(e)k beste sarrera bat idatzi du: Otegi zigortzeak Espainiaren "ahultasuna" adierazten duela uste du ezker abertzaleak duela 1 minutu · Ikusi

BECen EH Bilduk larunbatean egin zuen ekitaldirako adierazpen bat grabatu zuen ezker abertzaleko buruak, eta horregatik komunikazioak eten dizkio Espainiako Espetxe Zuzendaritzak.



Unai Zubeldia Arruabarrena-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 8 minutu · Ikusi

Hiru itzuli handiak egin ditu aurten, eta gutxienez bi azken urteotan, baina, ondo bidean, Espainiako Vueltan "bakarrik" ariko da 2013an.



Unai Zubeldia Arruabarrena-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 9 minutu · Ikusi

Amets Txurrukar hartu du erabakia. Zeuzkan aukera guztiak aztertuta, Caja Ruralen ariko da, azkenean, Ebebarriakoa datorren denboraldian.



berria-(e)k beste sarrera bat idatzi du: Baumgartnerrek erronka gainditu du duela 31 minutu · Ikusi

39 kilometrotik gorako jauzia egin du, eta soinuaren abiadura gainditu. Onik ateratzen da...



berria-(e)k beste sarrera bat idatzi du: 'Parot doktrinaren' aurkako helegitea jarriko dute Estrasburgon hogeitres presoren abokatuek duela 33 minutu · Ikusi

Amaia Izko eta Olivier Peter abokatuek gaur aurkeztuko dituzte helegiteak, 11:00etan. Orotara 67 dira 197/2006 doktrina aplikatuta duten euskal presoak.

AZKEN EZTABAIDAK

UROLAKO KOSTAKO HITZA: Aian «zabor-fardoen biltegiak» ez jartzea onartu du udalak | Hondakinak | Scoop.it(e)k Aian «zabor-fardoen biltegiak» ez jartzea onartu du udalak bidalketan

Aritz aldabe | Entertainment4(e)k «Dantzarako urrats berriak, 'Oinazez' ikuskizunean bidalketan

Hasi dituzte jaiak Orion (bideoa eta argazkiak) | Urola Kostako Hitz(e)k Lekukoa, San Pedrorentzat bidalketan

Beñat Lizeaga, Bergoi Mademaz, Aitziber Plazaola eta Xalbador Ramirez gazte independentistak fidantzapean aske | topatu(e)k Beñat Lizeaga aske utziko dute gaur, fiantzapean bidalketan

Xeyko langileek greba mugagabea hasiko dute astelehenean | Urola Kostako Hitz(e)k Xeyko zuzendaritzak soldatak ia heren bat jaitseko asmoa dutela salatu dute langileek bidalketan

pedagogia da. Independentzia zertarako, zergatik, nola bideratu azaltzeko ez daukagu diskurtso propio bat, ez delako egiten pedagogiarik. Eta nik, idea politikoen laborategia sortzea proposatzen dut, proposamen eraikitzaileak eginez idea eta diskurtso politikoak garatzeko.

FITXA



- Izenburua. 'Independentziaren paperak'.
- Idazlea. Pako Aristi (Urrestilla, 1963).
- Argitaletxea. Erein.
- Orrialdeak. 296 orrialde.
- Salneurria. 17 euro.

Etiketak: [Erein](#), [Independentziaren paperak](#), [Pako Aristi](#), [saiakera](#)

Iruzkinak



Erabiltzailea

Pasahitza

[Izena eman](#) Berriketan.



PAPEREKOA

Getariako Udalak eta Euskaltzaindiak herriko toponimia aztertuko dute

Euskara, Paperekoa
Nork Ane Olaizola

Getariako Udalak herriko toponimia bildu, arautu eta «normaliatuko» du, Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Getariako eremua hartzen duen plano berria egingo dute, eta horretarako lehenengo pausoa herriko toponimia [...]

[Irakurri gehiago](#)

Ibarguren gailendu da kadete mailako Euskadiko proban

Azpeitia, Kirola, Paperekoa
Nork Arnaia Ventas

Oier Ibarguren azpeitiar txirindulariak irabazi du kadete mailako Euskadiko Txapelketa. Joan den larunbatean egin zuten proba, Urdulizen, Bizkaian. Atracciones Sanz taldeko beste txirindulari batek egin [...]

[Irakurri gehiago](#)

Iraurgi Cup 2013ri begira

Azpeitia, Kirola, Paperekoa
Nork Nerea Uranga

Amaitu da Iraurgi Cup futbol 8ko txapelketa. «Bukatu da, baina hasi gara datorren urtekoari begira», dio Meliton Rodriguezek, Iraurgi Cup kirol klubekoak. Gustura gelditu dira [...]

[Irakurri gehiago](#)

Antolatzaileak «gustura» dira Alai auzoko estreinako festek izan duten harrerakin

Jaiak, Paperekoa, Zumaia
Nork Ane Olaizola

«Pozik» dira Zumaia Alai auzoko festen antolatzaileak. Lehenengo aldiz ospatu dituzte jaiak auzoan, eta Jon Iraola antolatzaileak adierazi duenez, auzotarrak eta heritarrek ongi erantzun dute, [...]

[Irakurri gehiago](#)

Festek, sorlekua abiapuntu

Jaiak, Paperekoa
Nork Arnaia Ventas

Jende ugari ibili zen larunbatean ikusmiran Iñumitzako azokan (Argazkilaria: Aritz Mutiozabal)

San Pelaio eguna ekainaren
26a bada ere, herritarrek
lehendik murgildu dira
Zarauzko zaindariaren
omenezko [...]

[Irakurri gehiago](#)

EUSKAL JAIAK

[Arkupean azala](#)

URTEKARIA



© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Faxe 943 134 122 - E-posta: urolakosta@hitza.info Perez Arregi plaza 1 behea, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358



EUSKO LEGBILTZARIA
GOBIERNO VASCO
HUTUTA-SALA
Euzko Legebiltzariaren Batzarburua
GOBIERNO DE Euzkadi
Batzarburua de Euzkadi



Gipuzkoako Foru Aldundia